

TORREALDAI, Joan Mari. *El Libro Negro del Euskera*. 25,5 x 17 zm., 222 orr. Ttartalo Argitaletxea. Donostia, 1998.

Liburu hau erdaraz idatzia dator. Bere 11. orrialdean irakurle euskaldunari oharrez dioen beza-la: "Euskaraz irakurtzen jakin gabe bere burua kultotzat daukaten horiek enteratzea nahi dut euskararen eta euskaldunaren aurka zer esan den eta zer egin den. Eta hori lortu nahi dudalako idatzi dut erdaraz liburu hau. Premiarik handiena, gainera, beraiena da". Baina hori aski ez delarik, horrez gainera, beste honako hau ere gehitzen digu: "Euskaraz gain zuk badakizu erdara ere: zu ere irakurtzera gomitatua zaude. Euskaldunontzat ere interesgarria da gure hizkuntzat eta hiztun komunitateak historian zehar jasan behar izan duena zehazki ezagutzea. Euskararen oraingo egoera ez da kasualitatea, eta gutxiago halabeharra. Kausa jakinak ditu. Liburuan zehar dituzu batzuk".

Hitzaurre gisako aurkezpe-nean dienez: orrialde hauen irakurketan ezer argirik bada, gure hizkuntza hau ez dela inoren ondare ideologian mugatzen, ez inoren politika ekintzan, ez eta aldi jakin batean. Honek, Espainiako historia modernoa erakusten du. Eten gabeko iraganean mendeetako ideologiak osatzen duena. Espainiako nazionalismoak berakin dakarren hizkuntz bakarraren aldeko indarkeritik datorkiguna da. Baina agiriak agertzean, hor da-

toz era berean Frantzia ere jokatibide berdintsua erakusten dutenak.

Azken hiru mendeetako agiriak biltzen ditu, bi zutabetan: ezker aldean, euskararen debekuak zein kontrako iritziak; eskubialdean, garai berean historiako gertakari edo une bereziak agertuz.

Etxetik bertatik datoz lehen ukamenak, 1730eko urtarrilaren 9an, Beasaingo herriak, maisuarekin bat etorriaz, eskoletan euskaraz egiten duten haurrak eraztunez zigortzea erabaki zutenekoa. Azkenak, 1998ko urtarrilaren 9an, Zarautzeko kontzeju idekian, PPko zinegotziak, euskaraz mintzatu zen HBkoari eragozpenez hitza etetzear, ETAkoek hil zuten J.I. Iruretagoiena euskalduna oroituz. Edo hitzatzetatzat duen (Epilogo) horretan, non eta Gernikan futboleant, euskaraz mintzatu zenari txartel oria ateratzean.

Batzutan, azalpenok, gogorre-giak irudituko zaizkigu, baina hotz-hotzean begiraturik hala dira. Historia zehar gora-behera batzuk nabari dira, Primo de Riveraren garaian gorakada izan bazen, frankismoan izan ziren unerik itogarrienak eta haren eragina oraindik nabari da zenbait talde politikoren eraginean.

Egilea bilketa soilean oina-

ritzen da eta hor agertzen ditu lekukoak. Hor datoz kronologiko-ki eskoletan erdara hutsik erabiltzeaz eta euskara debekatzeaz gainera mintzatzen zirenak zigortzeak. Gainera, debekuak eta galerapenak, eskoletaz gainera, liburugintzan, antzerkiak aurkeztean, administraritzako agiri publikoetan, errejistro ofizialetatik baztertzean eta abar. Etenik gabeko jipoiak, bata bestearen ondorek, euskaldun familietan jaio ziren haurretzat, beste pekaturik gabe. Zoritxarrez, agindu horiek ez zetozten beti kanpokoengandik, hemen bertako udalek eta foruzale haien Batzar Nagusi eta Diputazioetatik ere bai.

Lehengo denboretan ere ulertu egiten zaizkigu jokabide horiek, berez herri baten hizkuntza naturala denaren aurka. Gehiago oraindik, gaur egun, politika talde batzuren buru direnek, jokaera hortatik jarraitu nahia. Non dira ba ONUk 1948.ean mundu zabalera eskaini zituen Giza eskubi-deak? Non Unesco-k 1953ean eskoletan guraso hizkuntzan hezitzeko arauak? Gomendio nagusi horietara makurtzen ez diren Konstituzioak indarrean jarri eta iraun nahirik ari diren Estatuez zer pentsa dezakegu?

Lekukotzat datozen agiriok, ikusten denez, etorri ahala sartu ditu inolako hautaketarik egin gabe. Izan ere, aurkezpenean aditzera ematen duenaren arabe-

ra hori zen erarik egokiena. Baina zenbait pertsonagan, behar bada, kontestua kontutan edukiaz, hobe izango zen baztertzea edo oharren bat gehitzea. Hau esatean, besteak beste, Pio Baroja datorkit burura, ez bere idazkietan euskal giroaz eta herri kantaz baliatzen zekiela, baizik aldi larrietan euskararen alde agertzen ere jakin zuelako. Irakur bere *El País Vascoren* 1953ko argitalpenaren hitzaurrea. Ausarta behar zuen izan frankismoari ihesi herbesterraturik egon ondorean hura idazteko. Nik hala agertu nuen *Reelección de Pío Baroja* (Donostia, 1996) bilduma haren 279. orrialdean idatzi nuena. Bere iloba Julio Caro Baroja ere, euskararen alde behin baino gehiagotan aritu zen, etnologo bati dagokion bezala, eta hemen jasotzen diren esaldiok, nire ustez, kontestu berezi batetakoak izan daitezke. Hala ere, ulertzen dut liburuaren egituragatik, lekukoak lekuko, egileari ezer ez zitzaiola baztergarri.

Diodan kontestua kontutan ez hartzekotan, garai batean *Zeruko Argian* "Euskaldun zertarako?" artikulua hura idaztera bultzatu ninduen ere hori zen, euskaltzale zenbaitegandik irakurri behar izan ditugunaren lekuko. Gure historia hurbileko une batzutan, euskaltzale batzuk ere bereak eta bi esanak dituzte, euskarari balioa gutxituz edo gerorako baztertuz, iraultzaren izenean edo mar-

xismoarenean. Abertzale batzuk ere, ezkerreko zein eskubiko, oraindik hor jarraitzen dute, asko ho-beagoa ez den euskararen aldeko borrokan inoiz euskararik ikas-teko asmorik gabe. Baina, hau ere ez zen liburu honen egiturarako. Behar bada nire *Euskararen os-tarteak* (Donostia, 1998) bigarren

ataleko VI. kapituluak bultzarazten nau hori aipatzera.

Oraingoz hor dugu *El Libro Negro del Euskera* gizarte aurrean batzuren lotsagarri eta giza esku-bideen lagungarri. Ezin esan beharrezkoa ez denik.

*J. San Martin*

ESNAL ORMAETXEA, Pello, *Nada de agua en Madrid*, Eurkaltzaindia BBK Fundazioa, Bilbo, 1998, 149 orri.

Eskuartean dugun liburu hau 1997an Euskaltzaindiak urtero antolatzen dituen Literatur sarien barnean eleberri arloan "Txomin Agirre" sariaren irabazlea dugu. Bertan duela 20 urte (1977an) bizi izandako istorioa agertzen zaigu, garai haietan Euskal Herri-ri bizi izan zuen egoeraren is-lada.

Baserri giroko eleberri honetan Felix izeneko apaizari lau egun korapilotsu eta mugituetan gerta-turikoa ageri da. Bizitza guztiz lasaia eta errutinarioa duen apaiz gazte honen esistentziak jasango duen zurrunbiloak oinarri ematen dio eleberriaren hariari. Egunero lanetik apaizetxera eta hemendik gau-eskolara errepikatzen den sekuentzia ETArek ekintza batek bortizki moztuko du. Nahi gabe ekintza horretan buru belarri murgildurik aurkituko du bere bu-rua. Nobelak isladatzen dituen

lau egun hauetan pertsonaia uga-ri agertuko da Felixen inguruan: ETAkideak, lantegiko lagunak, gau-eskolako ikasleak, arreba, amona... Guztien arteko lotura eta ardatza Felix da. Pertsonai tipo gehienek psikologi aldetik gutxi zehaztu eta sakonduak dau-de. Hauei buruzko xehetasun xume batzuk besterik ez zaizkigu ematen, haien aipamena anekdo-tiko hutsa delarik. Hala nola Eu-sebio, lantegiko erdaldun bakarra, Blas tabernaria, Arantxa, Felixen arrebaren laguna, eta abar. Pertsonaia gehienak, bada, lauak dira, hasieratik amaiera arte joka-bide eta izaera berdina man-tenetzen dutenak, euren adierazga-rra diren ezaugarri nagusiak gordez inolako garapenik jasan gabe. Honela Jon ikasle urduri eta ipurterrea, Xerura emakume kux-kuxero eta marmartia, Mikel ko-mandokide lasai eta ziurra... Al-